



Hyperloop Europara iritsi da

Hyperloop garraio sistema iraultzaileak Austria, Txekiar Errepublika eta Eslovakia konektatuko ditu, 1.200 km/h-ko abiaduran.

Hodi batzuen barrutik zirkulatzen diren kapsula sistema bat da Hyperloop, Elon Musk aitzindariak sustatuta. AEBn lehen linea prestatzen ari dira, eta honakoa Europako lehena izango da.

Sistema honen garraio abiadura oso handia denez, herrialde txikiengatik handiegia izan daiteke. Horregatik, nazioarteko bidaiak egiteko eraiki nahi dute.

Hyperloopekin, Pragaren eta Bratislavaren artean dauden 329 kilometroak minutu gutxitan egin ahalko dira. Auto batek hiru ordu behar ditu bide hori egiteko, eta, tren batek, lau.



- ◆ Presio gutxiko hodi baten barruan doazen kapsula sistema bat da.
- ◆ Energia gutxirekin, 1.223 km/h arteko abiadura lor daiteke.
- ◆ Hodia zutabeen gainean egongo litzateke; horregatik, azpian geratzen diren lursailek beste erabilera bat izan dezakete.
- ◆ Kapsulek lebitatu egingo lukete, magnetismoari esker, eta energia kostua ere txikia izango litzateke.

EBk akordioa lortu du ekainean *roamingaren* gainkostua ezabatze

Europar Batasunak *roamingarekin* amaitzea ahalbidetuko duen akordioa adostu du. Horren arabera, EBeko 28 herrialdeek ez dute *roamingik* izango ekainaren 15etik aurrera.

Hitzarmenaren arabera, telefono-deiak egiteko gehienez 0,032 euroko prezioa ezarriko dute, eta 0,01 euro sms mezuetan, azaldu du EBko Kontseiluak agiri batean.

Datuei dagokienez, gigabyte bakoitzeko 7,7 euroko prezioak behera egitea aurreikusi dute, apurka-apurka, ekainaren 15etik aurrera: 6 euro 2018 urtarrilaren 1ean, 4,5 euro 2019an, 3,5 euro 2020an, 3 euro 2021ean eta 2,5 euro 2022an.

Loiu eta Edinburgo arteko



hegaldiak
astean
bitan, apiriletik
aurrera

EasyJet hegazkin konpainiak Loiu eta Edinburgo arteko hegaldiak eskainiko ditu astean bitan apiriletik aurrera. Konpainiak atzo jakinarazi zuenez, urte osoan zehar asteazkenetan eta igandetan izango dira hegaldiak bi hiriburu horien artean.

Konpainiak 40.000 bidaiari eraman nahi ditu lehen urtean Bilbotik Edinburgora eta alderantziz. Hala ere, oraindik ez dituzte txartelak salgai jarri.

Gainera, martxoaren 26tik urriaren 27ra astean lau hegaldi eskainiko ditu Bilbo eta Paris artean —astelehen, asteazken, ostiral eta igandetan—, ekainaren 25etik irailaren 3ra bitartean salbu; izan ere, tarte horretan hegaldiak ostegunetan eta igandetan izango dira. Txartelak 20 eurotik eros daitezke dagoeneko.

Bi linea horiez gain, EasyJetek Bilbotik Londres, Manchester, Bristol, Milan eta Genevarako bidaiak egiten ditu.





Hogei urte barru 22 milioi minbizi-kasu diagnostikatuko dira urtean

Bihar, Minbiziaren Aurkako Nazioarteko Eguna gogora ekarriko du Osasunerako Munduko Erakundeak (OME). 13.500 minbizi-kasu berri inguru antzematen dira urtean Euskadin, eta bi hamarkada barru 22 milioi minbizi-kasu diagnostikatuko dira urtean munduan.

Arrazoi horregatik, prebentzioa eta detekzio goiztiarra funtsezkoak dira minbizi-kasuen gorakada saihesteko.

Minbizia zelulen alterazio genetikoaren ondorioz sortzen da. Batzuetan organo jakin batean gera daiteke, baina besteetan gorputzeko organoetara hedatzen da. Hala ere, minbizia kasu gehienak saihestu daitezke. Gainera, egungo tratamendu askok (kimioterapiak, erradioterapiak edota ebakuntzak) gaixotasun horri aurre egiten laguntzen dute, bereziki goiz detektatzen bada.

Minbizi motei dagokienez, biriketakoa, heste lodikoa, gibelegoa, biriketakoa eta bularrekia dira hilkortasun-tasa handiena dutenak. Baina Osasunaren Mundu Erakundearen iritziz, minbizien %30 saihestu daiteke erretzeari utzita, ariketa fisikoa eginda, elikadura osasuntsua izanda, alkohola utzita eta sedentarismoari aurre eginez.

Google markarik baliotsuena da

Google konpainia munduko markarik baliotsuena da, Apple atzean utzita. 109.500 milioi dolarreko balioa du, Brand's Finance's Global sailkapenaren arabera.

Markaren balioari dagokionez, Google etxeak %24 egin zuen gora 2016an; Apple enpresa, oster, 145.900 milioi dolar izatetik 107.000 milioi dolar izatera igaro zen. Hala, Google konpainiak azkenekoz 2011n lortutako postua berreskuratu du.



Marka "boteretsuenak"

Horrez gain, Legok ere lehen postua berreskuratu du boteretsuenen arloan, 92,7 puntu erdietsi baititu markaren sendotasunean. Arrakasta horren arrazoiak honako hauek dira, besteak beste: hazkuntza bultzatu duten hedabideekin zein kolaboratzaileekin egindako baimen-hitzarmenak batetik, eta Lego Stars Wars, Lego Harry Potter edo Lego Batman produktuen sorrera, bestetik.

Bestalde, Google, Nike, Ferrari eta Visa konpainiak osatzen dute munduko bost marka boteretsuenen zerrenda.



Kaltegarria al da panga jatea?

Espainiako Endokrinologia eta Elikadura Elkartek (SEEN) ziurtatu duenez, balio nutrizional gutxikoa da panga arraina. Hala, beste arrain zuri batzuekin alderatuta balio hori askoz ere baxuagoa dela esan du, baina argi utzi du ez dela osasunerako kaltegarria. Ildo horretatik, pangaren kontsumoak ez duela toxikotasun-arriskurik suposatzen azpimarratzen du.

Halaber, Kontsumoaren, Elikadura arloko Segurtasunaren eta Nutrizioaren Espainiako Agentziak (AECOSAN) aldizka egiten dituen kontrolak "oso zehatzak" direla eta sekula ez dela osasuna arriskuan jarri lezakeen sustantziarik aurkitu esan du. Ondorioz, pangaren kontsumoa ezin dela zalantzan jarri gaineratu du.

Dena dela, pangaren kontsumoa ezbaian jarri da askotan, arraina hazten den uraren kalitatea dela eta. Izan ere, 2010-2011 ikasturtean utzi zioten Euskadiko eskoletako jantokietan zerbitzatzeari. Polemika horren aurrean, pangaren salmenta eten duela iragarri du Carrefourrek.

Alabaina, SEEN elkarteak ziurtatu du pangaren kontsumoa ez dela kaltegarria, eta tamaina bereko arrainek duten merkurio-tasa bera dela esan du.

Pangaren kontsumoa osasunerako kaltegarria ez den arren, balio nutrizional gutxikoa dela onartu du (beste arrain zuriekin alderatuta balio nutrizional erdia). Elkarte horren arabera, arrain guztiek dituzte balio handiko proteinak, baina bakoitzak zenbat dituen jakitea da gakoa. Gainera, gantz gutxi duen arraina dela azaldu du.

EGURALDIA

Giroa aldarra izango da larunbatean; tarteka eguzkia agertuko da eta beste momentu batzuetan euria egingo du, haize zakarrarekin. Temperatura apur bat igoko da. Igandean, berriz, giroa oso ezatsegina izango da eta tenperaturak nabarmen egingo du behera.